

## Startinnova VII - Funtsezko baliabideak

Proiektu honek funtziona dezan, ezinbestekoak dira funtsezko baliabideak, eta horiek hainbat zatitan banatzen ditugu.


Lehenik eta behin, baliabide fisikoetan lokala dago. Lokala funtsezkoa da bezeroen segmenturako, eta, era berean, leku eroso da, bezeroa asetzeko behar den guztia duena. Gainera, irakurketaren sektorea dugu, eta hori ere oso garrantzitsua da sortu nahi dugun negozioan, irakurzaleei eztabaidatzeko eta hitz egiteko lekua ematen baitie. Horrez gain, altzariak, kutxa erregistratzailea, tresnak eta produktuak egiteko makina egokiak ere baliabide fisikoen parte dira.



Bestalde, baliabide intelektualen eta giza baliabideen kasuan, ezinbestekoa da guretzat enpresarekiko langile



espezializatuak eta konprometituak izatea, hala nola sukaldariaren, zerbitzarien, administratzailearen eta gainerakoen ezagutzak izatea, markaz, patentez eta sare sozialetako komunikazioaz gain.



Amaitzeko, gure finantza-baliabide nagusia eskudirua izango da, hain zuzen ere, gure aurrezkiak.